## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 20 OGASUNA, FINANTZAK ETA AURREKONTUAK

**Programa:** 933200 ONDAREAREN KUDEAKETA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 20 HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

**Programa:** 933200 GESTIÓN DEL PATRIMONIO

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

1.- FORU ONDAREA KUDEATZEA

Lege eta ondare arloko eta ondarea kudeatzearen arloko hainbat jardun egin dira, zerbitzu publikoei egokitzeko xedez eta interes orokorra gogobetetzeko, ondarearen gizarte errentagarritasuna optimizatzeko ahalegina eginez.

Jarduera eremu horren barruan, ondasun higiezinak, higigarriak eta eskubideak eskuratzeari dagokionez, altzariak/artelanak, higiezinak eta horien gaineko hainbat eskubide erosteko 21 espediente izapidetu dira. Alde horretatik, bi higiezin, sei higigarri eta azalera-eskubide bat erosi dira. Erosi diren higiezinen artean daude Kutxabanken sukurtsal zahar bat Ogasuneko bulegoak handitzeko eta zerbitzuak hobetzeko, Jundizko industrialdean orube-lur batzuk GILSAra, bertan hondakinak kudeatzeko planta bat jartzeko, eta Gasteizko Udalari azalera-eskubide bat, hiri horretan egoitza bat eraikitzeko. Bestalde, dohaintzen bidez, hainbat artelan eta lan historiko erosi dira hainbat museotarako.

Erosketa horiek egiteko, lehiaketa bidezko lizitazio-prozedura publiko bat egin da aurten, hutsik geratu dena.

Aurreko eragiketetarako, 10 ebazpen administratibo onetsi dira.

Ondasun higiezinen besterentzeei dagokienez, ondare-higiezinak besterentzeko 3 espediente izapidetu dira, dagozkien akordioekin.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1.- GESTION DEL PATRIMONIO FORAL

Se han realizado diferentes actuaciones jurídico patrimoniales y de gestión del Patrimonio, con el objetivo de su adecuación a la prestación de servicios públicos y para la satisfacción del interés general, tratando de optimizar la rentabilidad social del Patrimonio.

Dentro de este campo de actuación y en relación con la adquisición de bienes inmuebles, muebles y derechos, se han tramitado 21 expedientes de adquisición de muebles/obras de arte, inmuebles y diversos derechos sobre los mismos. En este sentido, se han adquirido dos inmuebles, seis muebles y un derecho de superficie. Entre los inmuebles que se han adquirido se encuentran un local antiguo sucursal de Kutxabank para ampliación de las oficinas de Hacienda y mejora de sus servicios, unos terrenos-solares en el polígono de Jundiz a GILSA para ubicar en ellos una planta de gestión de residuos, así como un derecho de superficie al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para la construcción de una residencia en esta ciudad. Por otro lado, en virtud de donaciones, se han adquirido diversas obras de arte e históricas para diversos museos.

Para la realización de estas adquisiciones se ha llevado a cabo durante este año un procedimiento público de licitación mediante concurso, que ha resultado desierto.

Para las operaciones anteriores se han aprobado 10 resoluciones administrativas.

En lo que respecta a las enajenaciones de bienes inmuebles, se han tramitado 3 expedientes de enajenación de inmuebles patrimoniales, con sus correspondientes Acuerdos.

Era berean, ondasun higigarriak doan besterendu dira, 7 espedienteren eta horiei dagozkien foru-aginduen bidez, batez ere beste administrazio publiko batzuei edo irabazi-asmorik gabeko erakundeei dohaintzan emandako erabilerarik gabeko ibilgailuenak.

Zerbitzu publikoak emateko higiezinen errentamenduei dagokienez, 5 errentamendu kontratu berri kontratatzea onartu da, eta lehendik zegoen kontratu baten luzapena izapidetu da. Era berean, indarrean dauden 11 errentamenduen zenbatekoak eguneratzea onartu da. Horretarako, 7 ebazpen onartu behar izan dira (akordio 1 eta 6 foru-agindu).

Beste alde batetik, 23 espediente tramitatu dira Arabako Foru Aldundiaren jabetza diren hainbat higiezinen erabilera beste administrazio publiko batzuei edo irabazteko xederik gabeko erakundeei lagatzeko. Eta lehendik zeuden zenbait lagapen erregularizatu edo luzatu dira. Horretarako, 9 ebazpen onartu dira (8 erabaki eta foru agindu bat).

Artelanen eta museo objektuen 5 mailegu onartu dira hainbat erakusketatarako, dagozkien foru aginduekin.

Urte osoan zehar Arabako Lurralde Historikoko udalei eta Aldundiak higiezinen jabetzak dituen beste lurralde batzuei dagokien OHZ ordaindu da, guztira 397.398,84 €.

Hainbat desjabetze prozeduratatik datozen finkak Jabetza Erregistroan inskribatzeko 6 espediente gauzatu dira.

Aldundiaren ondareko ondasunen gaineko defentsari, erreklamazioei, esleipenei edota baimenei lotutako 28 espediente izapidetu dira.

Arabako Foru Aldundiaren ondasun eta eskubideekin zerikusia daukaten ondare gaiei buruzko 48 txosten egin dira.

Aldundiak jabetza horizontaleko araubideko zenbait higiezinen jabeen erkidegoetan (24) parte hartzen duela eta, 28 espediente izapidetu dira

Asimismo, se ha llevado a cabo la enajenación gratuita de bienes muebles a través de 7 expedientes y sus correspondientes Ordenes Forales, fundamentalmente de vehículos en desuso donados a otras Administraciones Públicas o instituciones sin ánimo de lucro.

En lo relativo a arrendamientos de inmuebles para la prestación de servicios públicos, se ha aprobado la contratación de 5 nuevos contratos de arrendamiento y se ha tramitado la prórroga de uno ya existente. Asimismo, se han aprobado las actualizaciones de los importes de 11 arrendamientos vigentes. Para todo ello ha sido necesaria la aprobación de 7 resoluciones (1 acuerdo y 6 órdenes forales).

Por otro lado, se han tramitado 23 expedientes de cesiones de uso de diversos inmuebles propiedad de la Diputación Foral de Álava a otras Administraciones Públicas o Instituciones sin ánimo de lucro. Asimismo, se han regularizado y/o prorrogado diversas cesiones ya existentes. Para todo ello se han aprobado 9 resoluciones (8 acuerdos y 1 orden foral).

Se han aprobado 5 préstamos de obras de arte y objetos museísticos para diversas exposiciones, con sus correspondientes ordenes forales.

A lo largo de todo el año se ha realizado el pago del IBI correspondiente a los Ayuntamientos del THA y de otros territorios en los que la Diputación tiene propiedades inmobiliarias, por un importe total de 397.398,84 €.

Se han llevado a cabo 6 expedientes para la inscripción en el Registro de la Propiedad de fincas provenientes de diversos procedimientos expropiatorios.

Se han tramitado 28 expedientes relacionados con la defensa, reclamaciones, adscripciones y/o autorizaciones sobre bienes patrimoniales de la Diputación.

Se han emitido 48 informes sobre asuntos patrimoniales, relacionados con los bienes o derechos de la Diputación Foral de Álava.

Con motivo de la participación de la Diputación en Comunidades de Propietarios de diversos inmuebles en régimen de propiedad horizontal (24

ordezkapenerako, erkidego horiekiko harremanetarako eta ohiko kuotak eta obrengatiko kuota bereziak ordaintzeko. Kontzeptu horiengatik 45 ordainagiri ordaindu dira, 86.256,20 € guztira.

Azkenik, eta inbentarioari dagokionez, inbentarioan hainbat ondare eragiketa erregularizatzeko 34 espediente izapidetu dira, bai eta inbentarioko elementuen altak, bajak eta aldaketak ere.

Aurreko guztien edo beste eragiketa juridiko-patrimonial batzuen ondorioz, 2023an sei eskritura publiko formalizatu dira.

2.- ARRISKUAK ETA ASEGURU POLIZAK KUDEATZEA

2023ko ekitaldian 25 aseguru poliza berritu, sinatu eta zaintzeko izapideak egin dira. Era berean, aseguru-primen 22 ordainagiri eta 18 estornu ordaindu dira, urtean 1.063.725,33 €.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiaren eta haren foru erakunde autonomoen ondasunei eta/edo erantzukizunari lotutako 52 ezbehar espediente izapidetu dira aseguru etxeen aurrean.

3.- ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

Ondare Zerbitzuan guztira 73 administrazio ebazpen (Diputatuen Kontseiluaren 29 erabaki eta 44 foru agindu) izapidetu dira, zegokion organo eskudunak onar zitzan.

Comunidades de propietarios) se han tramitado 28 expedientes para la representación, relaciones con dichas Comunidades y pagos de cuotas ordinarias y extraordinarias por obras. Por estos conceptos se ha pagado 45 recibos por una cuantía total de 86.256,20 €.

Por último, y en relación con el Inventario, se han tramitado 34 expedientes de regularización en el mismo de diversas operaciones patrimoniales, así como las altas, bajas y modificaciones de elementos del Inventario.

Como consecuencia de todas las anteriores u otras operaciones jurídico-patrimoniales se han formalizado durante el año 2023 seis escrituras públicas.

2.- GESTION DE RIESGOS Y POLIZAS DE SEGURO

Durante el ejercicio 2023 se ha tramitado la renovación, firma y custodia de 25 pólizas de seguros. Asimismo, se ha realizado el pago de 22 recibos de primas de seguros, así como 18 extornos, por un importe anual de 1.063.725,33 €.

Por otro lado, se han tramitado ante las compañías aseguradoras 52 expedientes de siniestros, relacionados con bienes y/o responsabilidad de la Diputación Foral de Álava y sus Organismos Autónomos Forales.

3.- RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

En total, en el Servicio de Patrimonio se han tramitado para su aprobación por el órgano correspondiente un total de 73 resoluciones administrativas (29 acuerdos del Consejo de Gobierno y 44 órdenes forales).